

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Konspirazioaren xarma

Pandemiaren mundu honetan bizitzeari darion frustrazio ia unibertsalak eta sare sozialen dinamika teknologikoak forma eman diote kapitalizatu daitekeen konspirazioaren politika bati, “koronapolitika” berri bati. Orain arteko politika konbenzionalaren etiketa guztiak desafiatu ditu eta mugimendu berri asko bat sortu da haren inguruan, askotarikoa, oso heterogeneoa, baina denek sinesmen bat partekatzen dute: Boterea konspirazioa da.

Botere denak dira konspirazioa. Ez dira zilegi, ezin dira zilegiak izan, gobernuak hautatzen dituzten prozesuak boteretsuek kontrolatzen dituztelako, eta horregatik dira, *de facto*, zilegitasun gabeak. Mugimenduok eliteen kontrolaren inguruko ohiko fantasiak eta berriak tartekatzen dituzte. Totalitarioak dira denak, estatuak, teknologia konpainia handiak, erraldoi farmazeutikoak, banku handiak, zientzia klimatikoa, komunikabideak eta zuzentasun politikoa, denak dira totalitarioak. Musukoak, txertoak, itxialdiak, den-denak. Herrian beldur gehiegi sartzen dutela diote, egia ezkututzen eta jendea engainatzen dutela.

Iazko abuztuan Berlingo Reichstag-a eta aurtun Washingtoneko Kapitolioa asaltatu zituztenean alarma guztiak piztu ziren. Jada ez zen duela urte batzuk eztabaida politikoa agintzen zuen «populismoaren» kontu bat, ez, beste gauza bat zen. Nondik sortua?

Aspalditik dator. Oso-oso atzera joan behar da, ehiztari-biltzaile ginen garaietaraino agian, bizitzaren zirkunstantziek gure arbasoak susmagarri izatera bideratu zituen garaietara, eboluzioak mesfidati izatera bultzatu gintuelako. Gertuago ere badaude konspirazio istorioak nonahi, Illuminatiak, masoiak edo Siongo Jakintsuen Protokoloak, mundua kontrolatzeko ustezko konplot judua, edo gaurkoagoa dena, zuri kristauak azpiratzeko Ordezkapen Handiarena. Gurean ere badi-ra, bai: Carrero Blanco CIAk hil zuela eta Martxoaren 11ko trenak ETAk zartatu zituela diotenak, esaterako.

Azenario, makila eta sermoiekin gobernatu da beti. Interneterako sarbide unibertsalak eta sare sozialek atentzioa bereganatzeko duten indarrak, baina, kontrapublikoak sortzeko espazio berria sortu dute. Hor ernaltzen dira konspirazio berriak. Sarritan zoro kuadrillatzat hartzen dira, eta hori egitean, gaixotasun mentala estigmatizatzeaz gain, haien jarraitzaileei birlatzen duten martirio moduko hori ematen zaie.

Mugimendu hauetaz ikasi egin beharko genukeelakoan nago. Ez beren edukiagatik, beren formagatik baizik. Errealitate alternatibo itzel batean rol joko baten antza hartzen dute, parte-hartzaileak emozionatu egiten dira eta oso adiktiboa da. Komunitate zentzu bat ematen dute. Elite satanikoen istorioek, mundua berriaz enkantatzen duten neurrian, bizitzaren errealtate mundutarretatik ihes egiteko balio diete batzuei.

Mugimendu konspiratibook datozen urteetan borroka politikoa zein joko zelaitan jokatu den adierazten digute. Jokatu dugula erabakitzeke ordua da

Ezkerrak bere historia arakatu behar du, berak inbertutu baitzituen kolektibitate modernoaren erritual asko XIX. eta XX. mendeetan. Erabilitako taktikak berriz errepasatu eta estrategikoki berreraiki daitezke arrazoi kolektiboaren proiektu bati begira. Antagonismoa konspirazio eta arrazoi kolektiboaren artekoa baita. Ez da bakarrik engainua borrokatu behar, erakargarritasun horren muinean dauden sentimenduak ulertu eta aurre egin behar zaie. Hor dago koxka. Ez dira bakarrik “negazionisten” gezur eta historiak, ez da zoro batzuen kontua. Engainua herrian nola sustraitzen den, dagoen eskaera bati nola erantzuten dioten ere hor dago. Zeren azken finean, mugimendu konspiratibo hauek, modu batean ala bestean, datozen urteetan borroka politikoa zein joko zelaitan jokatu den adierazten digute. Eta jokatu dugula erabakitzeke ordua da. •